

## Eskola kirola



Eskola ordutik kanpo egiten den kirola da, eskola kirola. Kirola lantzeaz gain adiskidetasuna, talde lana, higie-ne ohiturak eta beste hainbat aspektu lantzea helburu duen eskolaz kanpoko jarduera bat da.

**Eskola** hitzak, atzean planteamendu ideologiko eta pedagogikoa dauka. Hori ondorengo puntuotan laburbiltzen da:

- Helburua: kirol ohiturak sustatzea, kirola eginez ondo pasatzea etab. Ahal izan dugun neurrian, kirolak berak barnean daraman lehiakortasuna edota irabazi nahi izateari balioa gutxitu diogu, eta maila berean jardueretan taldeak izan duen asistentzia eta jarrera kokatu ditugu.
- Guztientzako aukera eskainiko duen ekintza, inongo bazterketarik gabekoa.
- Eskola Kirolaren legeari jarraituz, garatu den planteamendua da, eta “herriz-herri” formatu ezberdinez erantzuten diona horri.
- Hizkuntza Normalkuntza Plangintzan landu nahi ditugun helburuei eutsiz, ekintzak euskaraz burutu daitezten lan egiten dugu.
- Bergarako Eskola kiroleko kudeaketaz, **EGOITEK** enpresa arduratzen da, eta berau ikastolak sinatuta daukagun hitzarmenean hala jasota dago.

Kirol eskaintza hau lehen hezkuntzako ikasleei soilik dago zuzendua.

Bestalde, eskolako eskola kirol proiektuaren barnean, **mendizaletsuna** ere badugu. Mendizaletsunaren helburua, haurrak guraso zein adiskideen (ikastolakoak eta ez) laguntzaz naturarekin errespetua lantzea duen helburu, beti ere jarduera fisikoa eginez.

Urtean zehar, mendizaletasunetik ikasleak gurasoengandik lagunduta 10 igandetan mendi ibilaldiak egiten dituzte Gipuzkoako txoko desberdinetara. Honetarako ikastolan bertan, aurrez izena eman behar izaten da.

Jarduera hau lehen hezkuntzako 4, 5, eta 6.mailakoei eta Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 1go, 2. eta 3. Mailakoei dago zuzendua.

**Arduradun orokorra:**Olatz Igartua

**Norentzat:** ikasleei zuzendua

## ANTOLAKETA

Eskola kirolaren antolaketa oso anitza da gure herrietan. Bergarako kasuan, enpresa bat da antolaketarena arduratzen dena, nahiz eta enpresa hori, EGOITEK, momenturo dago bergarako beste ikastetxe eta udaletxeko eskola kiroleko arduradunarekin kontaktuan.

Herriko eskola kirolaren kudeaketan eta antolaketan ondorengoek eramatan dute aurrera:

- Bergarako eskola kirol kontseilua: Herriko ikastetxe bakoitzeko eskola kirol koordinatzaile bat, Egoitek enpresako eskola kiroleko arduraduna eta bergarako udaleko eskola kiroleko arduraduna.
- Eskola ezberdinetako zuzendariak, udal zinegotziak eta udal kirol teknikaria.

Eskola kirola programa honen barnean, inguruko beste zenbait herri ere sartzen dira, Elgeta eta Antzuolako eskolak hain justu. Bi herri hauen eta bergarako eskolen artean antolatzen dira larunbatetako partidak, herri guztiak ligaxka berdinetan kokatuz.

Eskola bakoitzak kirol entrenamenduen antolaketaz arduratzen den enpresarekin, gaur egun EGOITEK dena, hitzarmena du sinatua, non hitzarmen horretan, enpresaren zeregina arautzen den. Baina honetaz aparte, eskolon lana da ere ondorengoa da:

- Kirola egitea sustatzea ikasle zein gurasoengan.
- Izena emate garaian informazioa eman, diptikoak banatu, izenak jaso, taldeak egin....
- Batzordeetan parte hartzea.
- Dena modu egokian joan dadin, beste erakundeekin batera, lanean aritzea.

Bestalde, larunbatetako partidak aldaketa garrantzitsu bat jasan dute. Aldaketa nabarmenena jarraian aurkezten dugun Lehiaketa Sistema izango da. Sistema honek ikasturteko egutegian azaltzen diren kirol guztiak hartuko ditu beregain, bai partiduetakoak eta baita topaketetakoak ere.

Beraz, haurren motibazioa, partaidetza eta asteburuetan kirolarekiko konpromisoa sustatzeko asmoz, irizpide desberdinetan oinarrituz (jarrera, partaidetza, puntuaketa) jardunaldi bakoitzean talde bakoitzaren lana baloratuko da. Alde batetik, jarrera puntuatuko da (joko arauetako, taldekideetako, materialarekiko eta arbitroen erabakietako errespetua...). Bestetik, partaidetzak garrantzi handia izango du (jardunaldi bakoitzeko taldekide kopurua...). Azkenik, partidu eta topaketetako lehen emaitzak kontuan hartuko dira.

Hau guztia honela izanik, guztion parte hartze eta laguntzaz, egunetik egunera gure eskola kirolaren kalitatea hobetzen saiatuko gara, beti ere haurren hobe beharrez, kirolaren bitartez ondo pasatu eta disfruta dezaten.

Mendizaletasuneko antolaketa zein helburuak aldiz bestelakoak dira. Natura ezagutu eta errespetatzen ikasteko aukera paregabe hau Bergarako Pol-Pol mendi taldea, udaleko kirol teknikari bat eta Bergarako eskola kirol kontseiluaren laguntza eta antolakuntzaz egiten da.

Proiektu honen helburuak ondokoak dira:

- Natura errespetatzen ikasi
- Jarduera fisikoaren laguntzarekin naturaz gozatu
- Lagun giroan ondo pasatu

## **GURASOEN LANA**

Garrantzitsua da gurasoek ere, eskolarekin batera, umeei kirola egin dezaten sustapen lanean aritzea, animatzea, laguntzea,...

Alde batetik eskola kirola dugu. Eskola kirolean gurasoek bere seme- alabak bertara kirola egitera bultzatzeaz gain benjamin eta alebin mailatan larunbatetan egiten diren partidetan entrenatzaile papera hartu behar izaten dute. Gurasoak ez dira derrigortuak joan beharko bertara baina beraien laguntzarik gabe, antolatua dagoen txapelketa mota ez legoke aurrera eramaterik. Horretarako ondoren azaltzen diren zereginak dira gurasoei zuzendutakoak:

- Larunbatean jokatuko den partida guztietan guraso bat behintzat egotea. Hau horrela dela ziurtatzeko, eskola kiroleko koordinatzaile eta guraso elkarteko arduradunak txandaketa hori antolatu eta guraso guztiei banatzen arduratuko dira.
- Partidotan ziurtatu behar duguna: partaide guztien parte-hartzea orekatua dela, arbitroekiko jarrera egokia dela, jokalarien artean ez dela liskarrik ematen...

Mendizaletasunean aldiz, gurasoek ez dute horrelako zeregin zehatzik, irteeretara joateko aukera beraiek hautatzen baitute. Antolatzen diren irteera guztietara, kasu berezia ez bada, ikastolan mendizaletasunean izen emandako ikasle bakoitzeko bi senitarteko soilik joateko aukera dago. Mendizaletasunean gurasoen zereginak ondorengoak dira:

- Eskola kirol koordinatzaileak ahala eskatuta, baliteke inoiz joandakoen zerrenda pasatzea eskatzea eta gero astelehenean berriz ere berari bueltatzea seme edo alabaren bitartez.
- Seme alaba gazteagoak eramanez gero irteeretara, gurasoaren ardurapean gelditzen seme alaba gazteagoak eramatearen ardura.
- Senitarteko guztiak, jakinaren gainean egongo dira ikastola ez dela inongo erantzukizunez jabe egingo. Ikastolan izen emanda dagoen ikaslearen soilik izango baitu aseguru irteera horietan.

## **ESKAINITZA**

### **Eskola kirola**

3 kategorietan banatzen da:

- Aurrebenjaminak: lehen hezkuntzako lehenengo zikloa(1go eta 2. mailak). Kirol jolasak eta aurrerago landuko dituzten kirolentzat gaitasun fisiko sinpleak landuko dira. Asteaz gero bi saio izango dituzte.
- Benjaminak eta alebinak: benjaminak lehen hezkuntzako bigarren zikloa(3. eta 4. mailak) eta alebinak lehen hezkuntzako hirugarren zikloa (5. eta 6. mailak). Bertan kirol desberdinak hasiko dira lantzen.

Urte guztian zehar areto futbola, eskubaloia eta saskibaloia izango dira gehien landuko dituzten kirolak baina noizean behin beste kirol berriak sartzen eta ikasten joango dira: Badminton, boleibola, beisbola, pilota, sare jolasak, atletismoa, ur jolasak etab.

Astean zehar bi saio eta larunbat goizetan partidak izango dituzte. Azken hau aukerazkoa da, astea zeharreko saioetara soilik joateko aukera baitu.

## **Mendizaletasuna**

Jarduera hau bi mailatan banatu genezake:

- Benjaminak eta alebinak: Lehen hezkuntzako 4, 5, eta 6.mailako ikasleei dago zuzendua. Bertan, urtean zehar, igande goizetan elkartuko dira Gipuzkoako hainbat txoko ezagutzeko. Urtean zehar 10 irteera desberdin egingo dituzte non batzuetan autobusez desplazatu beharko diren eta beste batzuetan aldiz Bergararik bertatik ekingo dioten ibilaldiari. Maila hauetan ikasleek senitarteko bi eramateko aukera dute irteera guztietara, kasu berezietan izan ezik.
- Infantilak eta kadeteak: derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasleei dago zuzenduta, hain zuzen ere 1go, 2. eta 3. mailakoei. Maila honetan ikasleak senitartekoen laguntzarik gabe joango dira mendi irteeretara eta Pol-Pol mendi taldeko bat joango da beraiekin arduradun gisa. Hauek urtean zehar 6 irteera desberdin egingo dituzte, batzuetan autobusez desplazatuz eta beste batzuetan aldiz, Bergararik bertatik hasiz ibiltzen.

## **Bakarkako kirolak**

Ikastola bera ez izan arren beste kirol batzuen antolatzailea, taldeek ikastetxean bitartez egiten dituzte bai izen emateak eta baita kuoten kobratzea ere.

Bakarkako kirolen eskaintza: igeriketa, esku pilota, gimnasia erritmikoa eta karatea.

## **Jardueren izen emateak**

- Izen emate guztiak ikastetxean egin beharko dira
- Ikastetxean izena ematen ez duenak, ez du eskola kiroleko lizentzia eskuratuko.
- Epe bat emango da interesatuek izena emateko eta beste bat baja emateko. Epez kanpo ez dira izen emateak onartuko, ezta bajak ere.
- Arazoren bat izanez gero izen emate edo kobratzearen inguruan, ikastetxeko eskola kiroleko koordinatzailearengana jo ezazu zuzenean.

## **ORDUTEGIAK**

- [Eskola Kirola izen-emate eta ordutegia aurrebenjaminak 2015-16 - LH 1 eta 2](#)
- [Eskola Kirola izen-emate eta ordutegia benjamin eta alebin 2015-16 - LH 3,4, 5 eta 6](#)